Hiru hamarkada hiztunen beharrei erantzuten

'Hiztegi Fraseologikoa' Labayru Fundazioak hiztegigintzan egin duen ibilbide luzeko katebegi berria da. Guztira 3.500 lokuzio edo esaera batzen ditu, haien euskarazko 18.000 baliokidetza, 4.500 adibide eta 1.000 sinonimorekin batera

DABI PIEDRA

Interneten soilik kontsultatu daiteke hiztegia. LABAYRU FUNDAZIOA

ESKARMENTU luzea dauka Labayru Fundazioak hiztegigintzan, euskara batuaz nahiz bizkaieraz jarduten direnei tresna eraginkorrak eskaintzen. Oraintsu plazaratutako *Hiztegi Fraseologikoa*k berritasun nabarmen bat dakar, izan ere, hitz solteen definizio edo itzulpenak azaldu beharrean, esamoldeak eta lokuzioak batzen dira. Mamian ez ezik, formatuan ere jauzia egin du fundazioak, interneten soilik baitago hiztegia. Hala, proiektu dinamiko bihurtu dute, hiztunen ekarpenak jasotzeko aukera eta guzti. Unean uneko beharrizanei erantzungo badie, hiztegigintzak bide berriak urratu behar dituela garbi ikusi dute Labayrun eta horretan dihardute hasieratik.

Labayruren orain arteko hiztegien aldean, norabide aldaketa dakar *Hiztegi Fraseologikoa*k. Fundazioko hiztegigintza arloko arduradun Ziortza Egurenek dio, euskaraz behintzat, ez dela esamoldeak berenberegi batzeko hiztegirik egin orain arte: "Hiztegi orokorretan badator landurik eremu hori, baina corpusa murritza da". Oraingoz, gaztelaniaz sarri erabiltzen diren 3.500 lokuzio batu dituzte eta haien euskarazko ordaina eman dute, 18.000 esaldi inguru. Laster, euskaratik gaztelaniarako zatia argitaratzeko asmoa dute.

Labayru Ikastegia, oraintsu fundazio bihurtua, euskaldunen ondare kultural eta linguistikoa batu, ikertu eta zabaltzeaz arduratzen da. Lan horri etekina atera diote *Hiztegi Fraseologikoa* osatzeko orduan. "Ahozkotasuna batzeko hiztunengana jo dugu, Labayruk badauka atal bat herri ondarea batzeaz arduratzen dena", azaldu du Egurenek, "hiztegi honen ekarri handiena, ahozkoak hizkuntzari ematen dion bizitasuna islatzea da". Haatik, joera berriak ez dituzte alboratu nahi: "Gaur eguneko gazte euskaldunek darabilten argota batu beharra dago".

Labayru, halaber, hiztegi dinamikoagoak sortzeko bidean da. Lehenagoko argitalpen estatikoak baztertuta, gaur eguneko erabiltzaileak etengabe berritzen diren lantresnak nahi ditu. Hala, edozein hiztunek ekarpenak egin diezazkioke Labayruren lanari, hiztegietako edukia osatu, zuzendu zein aberasteko. "Eten gabeko lana da, beti dago zer gaurkotu, hizkuntza bera ere aldatzen doan heinean", dio Egurenek.

Lortxingu
Tankalo
Izarloka
Apiriku
Zizeilu
Erru
Sanjatu
Karranpa
Txerpolari
Kliska
Jaugin
Ziba

Jauzia Internetera

Labayru Fundazioak abian jarri du webgune berria (www.labayru.eus), 'Hiztegi Fraseologikoa' eta 'Labayru Hiztegia' erraz kontsultatu ahal izateko. Erabiltzaileen iradokizunak jaso eta etengabe berritzeko prestatu dute. "Teknologia berriek hiztegigintza aldatu dute eta egokitu egin behar dugu", dio Ziortza Egurenek, "gaur egun dena nahi dugu momentuan eta webguneak horretarako bidea ematen digu". Edozein gailutatik konektatzeko egokituta dago, izan ordenagailu, tablet zein telefono adimendun. "Sarean egoteak erabiltzaileagazko hurbiltasuna ahalbidetzen du, duda barik".

ONDAREA OINARRI Garai berrietara moldatzeko beharrak aldaketa sakonak ekarri ditu Labayru Fundazioko hiztegigintza alorrera. Iraganeko eskarmentua da, ordea, etorkizuna eraikitzeko oinarria. Egurenek azpimarratu du Labayrun hiru hamarkada daramatzatela hiztegiak lantzen. "Bide luzea egin dugu lexikografian, euskararen batasuna eta aniztasuna uztartzeko ahaleginean". Ezaugarri nagusia bizkaierari eskaintzen zaion arreta da. *Hiztegi Fraseologikoa*n ere, batuaz eta bizkaieraz eman dira erdarazko esamoldeen ordainak, bakoitzari dagokion markarekin. "Bizkaierari zegokionez hutsune bat zegoela ikusi zen", dio Egurenek hiztegigintzan egindako aurreneko pausuei buruz. "Bizkai euskararen hiztunei eta ikasle-irakasleei zuzendutako *Eskola Hiztegia* izan zen". *Labayru Hiztegia* heldu zen gero. *Hiztegi Fraseologikoa* da hurrengo katebegia.

Labayruren hiztegiak "elkarlanaren fruitu" direla azpimarratu du Egurenek. "Urteetako eskarmentua duen lantaldea gara, askoren ahaleginagaz egindako hiztegiak dira". Filologo, itzultzaile, irakasle, idazle eta abarrek parte hartzen dute. Iturri askotatik edaten duen lana da hiztegigilearena, norberaren sormena barne. "Zehaztasun handia eskatzen duen beharra da".

Hiztegigintza ardura bereziz lantzen den arloa da, "gure hiztegiak Labayruren atal guztietan batzen den ondarearen topagune eta ispilu dira". *Hiztegi Fraseologikoa*k zabaldutako ildoak aurrera egingo duela ziurtatu du, "erreferentziazko corpus osotua eta elebiduna eskaintzeko lanean gabiltza". Hiztegiek harrera ona izan dutelako pozik dago Eguren, "gogotsu gaude bide honetan segitzeko eta fraseologiaren arloan egindako ibilbideari jarraipena eta osotasuna emateko".